IRALLA
24
Astartea

Bilbao, 1935

Euzkadi

ARPIDE-SANEURRIJA
Bilbao'kua ... ... 9,00 irko. iru ilez
Bilbao'atazkua.. 11,25 " "
Idazki-Itunmena 62,00 " urtez
Atzarrijetakuak 112,50 " "

Beldayen itunduba

XXIII urtia || Idazkolea ta Banakolea: Correo, 17,1.° || 234 Idazkutxa || 17.810 Urrutizkiña || 7.097 zenbakija

Gai jakingarrijenak

Bakə-billa

Kisto'ren bakia bila dabiltz gixonak, baña Aren agindubakandik uŕunduta, artega, urduri juan duaz. Egunero Goizpaŕkijak irakuŕi biaŕ litxakez txaidietan, be, eŕege ta aginŕarijai, ostera, buruz ikasi-eragingo geunskijoe. Alkaŕ-ikusi eziña, goŕotua ta bekatxa dira nausi.

Kistaŕen antzik, be, eztaukogu. Indaŕ geyen daukonak zapaldu darua bere lagun urkua. Luŕ-zati orixe atsegin ya, esanaz batera, gudaroste ikeragaŕijak mugitzen dira. ¡Gixonaen bixitzeak, ostera, eztau ezertxu balijo! Guda goŕi oŕeitan jausten diran gaxuak, aberiak baño gitxijago balijo dabe. Eta oŕeik be euren arimea dauke!

Fŕoma'ko Aŕa'ren etxetik itz gozuak yatoŕkuz. Uso zuri bat bai'litz etoŕi yatoŕkuz itz zerutaŕak, baña gixonen zupuzkerijak eztauz onaŕtzen. ¿Gudearen ondorenguak zelakuak ixaten diran? ¡Amaikatxu negaŕ, samin, oñaze!

Baña kistaŕ batentzat gauza gordiñagorik ba-dago Gudari gaxo areik, lixunkeri ta biraoetan barna dabiltzanak, tiro batek il daruaz. ¡Aguŕ betiko argija! ¿Nora duaz? Autoŕkuntza bat egiteko astirik eztauke. Geruago ta gogoŕago jagi biaŕ gara gudearen auŕka. ¡Betiko ondatuko al dira gudea nai dabenak!

Gai oni buruz ara zer dirauskun "Gama" azkaŕak bat:

"Oraintsu Friburg'en egin dan Katoliko Batzaŕean M. Motta suizaŕ lateŕi gizon yakintsuak itzaldi edeŕ bat egin dau kistartasuna ta bakeatzaz. Izan be, itzok bata bestearen ondoren gabiz eta ezin leikez banandu. Kristo gure Yauna bakea ekarten etoŕi zan, eta bere Eleizak beste biderik ezin lei ontzat emon. Zuzen diño, ba, Motta yaunak: "kistaŕtasuna bakearen erlejiñoa da. Edozein matxinada, biuŕikeri ta goŕoto kistar gogoaren etsai dira. Bakea sendian lenen, bakea gizartean eta bakea lateŕi-artean." Yakiña oŕetarako, goyetan zuzentasuna, bekoetan menpetasuna, eta idekoetan anaitasuna bear dirala. Baña orixe da kistartasunak aldi ta alde gustietan irakasten dabena. Beraz kistartasunak biotzetan sustrai sakonak botaten dituanean, bakeak berez urtengo dau, guda naspila ituŕiak agortzen dituanaz baten.

Norbait "gudazale" agertzen ba-da ba, egiz uste izan geink kistaŕ gogoak ez darabilela. Bakezaleak zorionekoak diran ezkero, gudazaleak zoritxaŕekoak dirala esan beaŕ.

Gaur lateŕi arteko auziak ebazteko Ginebra'ko Lateŕi-Batza agerzen yaku. Gustien gogoko izan ez aŕen, on asko egin dabela ezin ukatu. Beraz, begi onez ikusi beaŕ ditugu, egiz bakezale ba-gara, lateŕi-gizonok bakearen alde egiten dituen alegiñak. Besterik ez dan bitartean, berau ondatzea negargaŕi izango litzake, indaŕa nagosi ta eŕi txiki ta argalak umezurtz lez geldituko-litzakez-ta. Zuzen ba Motta yaunak esan dau berak ezin dabela ulertu kistaŕak Bazkun oŕen estutasunei zirkiñik egin barik begiratzea. Bakearen aldez egiten dan gustia datoŕen tokitik datoŕela pozez ikusi bear dozu, kistaŕak beintzat.

Emakume abertzaliaz

Gipuzkoa'ko emakume abeŕtzaliak lan aundijak egin daroez. "Itziaŕ'era!, Itziaŕ'era!" ixenpurutzat daukon daŕ auxe bialdu dauskube:

"Baidakizute igandean ilaren 29'an, Azpeiti erbaŕutikoak Itziaŕ'en jai edeŕ bat degula. Gipuzko Emakume Abeŕtzale Batza'k eratu ditun jaietako bat.

Itxiaŕ'ko ontara, Azkoiti, Azpeiti, Aŕona, Aizarna, Deba, Eibar, Elgoibar, Elgeta, Getari, Mutriku, Orio, Zarautz, Zestona ta Zumaya'koa': eldu bear dira, guziok Ama Neskutzaren oñetan elkartu gaitezen.

Bai dakizute jai aben zioa: neguan saŕeran Goiko Amari bere onespen eta laguntasuna eskatzea, aurtengoan, bestetan baño ere zintzoago ta kementsuago JEL aldez saiatu gaitezen.

Guazen ba Itziaŕ'a, Ama maiteari Euzkadi-aldez otoi egitera, laguntasun eskatzera, bere onespena eskatzera.

Asmo ontan amaiketan meza abestua izango da; guzi-guziok "Angelis" deritzana abestuaz. Meza ondorenean "Salbea" baita.

Abek amaitu ondoren, bereala, auŕezkua, esan degun eŕi oietako Uri-Buru Batzaŕetako lendakari jaunak, eta Emakume A. B.'ko lendakari anderak dantzatua.

Bereala bazkaria zelaian. Onetarako nor berak etxetik eramatia onena litzake. Ala ere bertan artu nai duanak Batzokin izango du.

Iruretan itzaldi edeŕ-edeŕak, Urtzelal'taŕ Julene anderetxo argiak eta Irazusta aldun jaunak egiñak. Entzungaŕian aben bien itzaldiak, eta guziak entzuteko gogoz gaudenak.

Ondoren Eŕomeria gazte jenteak jolas aldi garbiaz amaiera eman dezaion. Eŕomeri, au abemaritakoa ots eginda amaituko da.

¡Ea ba emakumak, bat bera gelditu gabe guzi-guziok Itziaŕ'a ilaren 29! ¡Itziaŕ'era igandean!—ORDEZKARI.

Asterokuak

Gure asterokuak ba-duaz. Orain urte batzu ezkeban uste-ixango olako asteroko txukunak argitaratuko zirala, baña abeŕtzaletasunaren alatz edo milagruak edonun agiri dira. "Argia,,'ri begiratu ezkero, nor ezta poztuko? Azal dotoria mila argazki txukunez. ¡Mamija, ostera! Geure euzkel-idazlerik azkaŕenak bertan datzi daroe. Esateroko, azkenengo zenbakiari buruz: "Astea; Peria, alper askoren aitzekia? Matxingoŕi'ren "Bidez bide" sala; "Umien aziketa" Artetxe'taŕ Iñaki'k egiña; "Italia-Abisinia", Artetxe'taŕ Joseba; "Belgika'ko langile gazte katolikoen batzaŕa", Goyeŕitaŕ batena; "Basaŕi" argijak bere bordatxoari tinki eutsiten dautso. Eŕijetako izpaŕak, be, euŕez dakaŕz. Gipuzkoa'ko eŕixka geyenak. Bizkai'ko ale batzu, be, an dira, Ulejuan'i eskeŕak. Eta askoren maxu yakun "Laŕeko" jaunak Napaŕoa'ri daragoio. Azken-oŕijak be ondo ordiduak dira. ¡Gora "Argia"!

Baña beste astoroko txukun bat, be, emen daukogu. Bizkai'ko "Ekin". Jaupari on eta zerutaŕai eskeŕak egin biaŕ dautseguz. Zornotza'ko "maketo-eŕijan" agertzen dauskube. "Astea" edeŕki egiña. Gero "Gama" aipagaŕi ta idazle trebe-trebiaren "Kistaŕ-bakezaletasuna". "Gexua osatu beaŕa" deritxo "Ogoñope,,'ren lantxu bati. Idazle au geruago ta gotago yuaku. ¡Auŕera! "Gizarte gayak" deritxon salari begira gagoz. ¡Euzkeraz eta gizaŕte-arazuetzaz! Bai sakonkiro, be, gero! "Elerti jakingaŕi ta naste". Emen daukoguz "Abeletxe" ponpoxa, Ormalda oleŕkarija eta "Mikelats" sakona. "Katoliko bizitza", "Gama" zintzuak eginda. "Nabaŕiztaŕa,,'k, baŕiz, lan sakon-sakona darabil. Eŕi gustijetako izpaŕak eta azkenez "Gurutz", "Ituŕondo" eta beste askoren idazlanak.

¿Noiz uste ixango geban olako asterokuak agertuko zirala? Euzkerea ba yuaku, baña idazlien eŕuz ezta. Onein lan onuragaŕijak lenengo malan jaŕi daiguzan. ¡Ezar irakuŕten eztebak eŕudun dira! Zeuk, irakuŕke, artzen dozuz asteroko bi oŕeik? "Argia" eta "Ekin" erosten eztauzanak, zelako euzkel-zaletasuna dauka?

Euzkotar Umien Aldez

II

"...Et je n'entendrai plus
Les verrous se fermer sur
l'eternel reclus."—Alfredo de
Vigny. "La Circel".

Galdetu egiozu ume bati esaterako: —Zu, Kepatxo, ikusten al dezu mai au? eta erantzungo dizu. —Bai, andrea. —Ikusten al dezu mai gañean dagoan liburu au? —Bai, andrea. —Eta oŕ kanpuan dagoan eguŕ lodi ori? —Bai, andrea. —Eta mai au, liburu au, eta eguŕ ori iñork erabiltzen ez ba'ditu, berez, mogituko al dira? —Ez andrea. —Edeŕki dago. Eta zuk jaurtitzen dezun aŕia bera, berez, gelditu al diteke?

Eta beti, beti, erantzungo dute umeak: —"Bai andrea".

Berdin gertatzen zaigu guri. Geu nekatuta gaudelako, eta emezortzi uŕteak aspaldítxo igaroak ditugulako edo, oso eŕaz uleŕtzen degu gizon eta emakume zaŕak ezin litezkela beti saltoka ta gora-goraka ibili.

Ez degu baña ain eŕaz uleŕtzen "umeak ezin litezkeala geldirik egon" gure mogitu eziña bezelakotxea dala ayen geldirik egon eziña; gu ibiltzen ipintzeko añakoxe indaŕa beaŕ dala ayek geldirik eukitzeko.

Irakasle anderaño: Ez zaite izan, aŕen, gurasoen edeŕa eukitziaŕen umeak jolasaldi gabe euki oi dituzten irakasle ankeŕ oyetako bat.

Zeure ikastolan ori egitea, zeure auŕka, umien auŕka, eta ikaskizunen auŕka juatea dezu. Eta Umeiztiaren auŕka beŕiz, esan beaŕik ez det.

Zelan entzungo dizute, nola adi egongo zaizkizu ordubian ordu bian geldi-geldirik dauzkazun ume gaxoak?

Irakasle askok uste izaten dute umeak adi egoteko, gudarien eran, zutik, eskuak atzean, gorputza zuzen, burua beti auŕera begira egon beaŕ dutela.

Baña okeŕ dagoz. Onela dauden umeak, irakasleak dionari adi egon beaŕean, ikastolatik, noiz erten al izango duten oldoztutzen daude; zigoŕik irabazi gabe nola euren gorputza mogituko ete leukien, eskuak auŕerantz nola ekaŕiko ete dituzten... Zuaz ume oyeri, itxasontxi aundiak burnizkoak izanik eta ainbeste gauza aztun baŕuan eramanik, ondore juan gabe uraren gañean zelan ego al izaten dirau azaltzera. Ez alpeŕik!

Era oŕetara erabiltzen ba'dituzu zure umeak goŕotxa izango dizute, edo beintzat ez dizute maitetasunik izango. Beti "aspertuta" egongo dira zure ikastolan, eta maite ez zaituzten umeakin ez dezu aziera bidean auŕepen aundirik egingo.

Eta "aspertuta" dauden umiakin beŕiz, zer?

Aspertuta egotea, gogoarentzat izan leiken gauzarik txaŕena da. Gorputzarentzat oñazez deadarka egotea bezin txaŕa da gogoarentzat aspeŕtuta egotea.

Oñazetan dagoanak, al dituan era guztien bitaŕtez oñazeari iges egin nai dio; edozelan, edozer eraz oñazea kendu egin nai du.

Aspertuta da goanak berdin. Ez al dituzu entzun eŕderaz fastidio, eta englanderaz spleen delako ori euren gañean dutenak egin oi dituzten zorakeriak, iñosokeriak, bakankeriak, eta dongakeriak baita ere?

Aspertuta dagoan lagunak, bere kirio guztiak, bere garaunak, atzapaŕ luze batzuen aŕtean estututa dauzka, eta asperkeriak bultzata gauza txaŕ guztietarako gai da.

Ez dezala bada abere txaŕ gaizto onek zure ikastolan iñoiz ankarik saŕtu, aŕea beti ondo itxita zaitu egizu, zure umeak aspertzen ba'dira zure ta euren galdua da ta.

(Daŕaike.) AŔITOKIETA.

Donostia ala Donosti

«Basati»'rentzat

ESTATUS KUESTIONIS.—"Donostia" ala "Donosti" ote daneko auzi zaaŕari buruz "Basati,,'k "Donostia" dala idatzi zuan oraindik oraiño, Zumai, Getari ta Azpeiti bezela. "Irular,,'ek erantzun: "Donostia,,'ren "a" ori ez dala, Zumaia, Getaria ta Azpeitia'n bezela, artikuloa; Done-Sebastia" "Done-Bastia,,'tik datoŕena dala, ta beraz Donostia'ri azken "a" ori kentzea ez dala zilegi.

"Basati'k beŕiz, "Irular,,'en aŕazoia ontzat emanez, eŕiak ordea "Donosti" erabiltzen duala-ta, Donosti" dala egiazkoa. "Euskaldun utsak "Donosti", "Getari" esaten dute—dio "Basati,,'k; "erdel kutsudun batenbatek bakaŕik "Donostiya" ta abek ez beti, "Zumaya'ra nua" edo "Zumaya'tik natoŕ" esaten dutenei ere, ez'tiyet "Donostiya'ra nua" edo "Donostiya'tik natoŕ" iñoiz entzun; ortan ezagutu liteke bi izen oyetan azken "a" ori ez'tala mota batekua?

"Basati,,'k iñoiz entzun ez duan ori eŕi askotan entzuten da, ez "Zumaia" azken "a" ta guzti erabiltzen dan eŕietan bakaŕik, baita azken "a" ori kentzen duten eŕietan ere: "Azpeiti'ra" esaten dutenak berak esaten dute "Donostia,,'ra. Gure eŕian esaterako: an ez dezu entzungo iñoiz "Donosti'ra" "Donosti'tik" eta olakorik; eta orixe adierazi nai nion "Basati,,'ri: "Doostia" ere euskaldun jatoŕak erabiitzen dutela.

"Irular,,'en etimologi-aŕazoia baztertu, ta eŕia aŕtu nai ba'du lege, jakin dezala "Donostia" esaten duten eŕiak ere ba-dirala, erdel-kutsu gabeak.

Ez det uste beraz nere idazkia "Eŕeal bateko aŕazoi barik" egiña zegonik. Bestela ikusi: "Irular,,'ek zionez, ta Basati'k aintzakotzat artzen duanez, etimologi-aldetik "Donostia" da.

Eŕiak "Donosti" erabiltzen duala? Baita—nion nik—"Donostia" ere. Beraz eŕiaren aldetiko aŕazoi oŕek beste argitasunikan gabe ez du indaŕik, ez du eŕeal baten baliorik.

Nola da beraz? Donostia ala Donosti? Or ikus.

"Donostia" jatoŕago? "Donosti" (batzuentzat) polit-eleganteago? "Bakotxak bere, gostu".

Ta emen amaitzen da, nik dakusdanez, "Donostia-Donosti" buruzko auzi txiki zar au. Ondo litzake nere ustez gauzarik txikienetan ere batera jotzea, baiño bitartean batzuek "Donostia" naiz besteak "Donosti" darabiltelarik ere, ez dezagula beintzat "San Sebastian,,'ik iñork esan ez idatzi euskaldunek.

卐 卐 卐

Emen bukatu-beaŕa zan idazkai au ere, goiko auzi oŕen inguruan "Lauaxeta" maiteari bilduŕ ematen dion beste auzi bat ikutu-beaŕik ez ba'litz. Ez ikaratu bat ere, adiskide; "Basati" ori ez bait-da bat ere, bere luma ikasi-apaiñak erakusten duanez, izen bildurgaŕi oŕen jabe, ikusiko dezu nolako edeŕki artzen degun alkar.

Barkatu, Basati jauna, ez natorkizu "txulia"tzeko asmotan iñondik ere.

"Danak phonetika gaxua baztertuz idazten dutela—zenion—ta alaz ere iñor ez-tala azaldu phonetikare naurka". Ezetz? Sobera, sobera.

Goiko auziarentzako argibide txikiaz bat, prácticamente erantzun nai izan nuan lengo idazkaian foetika-bidea bana-bidea degula; ta bide ori ez zaiola iñondikan ere on euskerari, naikoa banakuntza bai bait-ditu gaixoak bestela ere, zuk prácticamente gaurko idazkaian egoki asko erakusten didazunez.

Eta oŕa nai nuana ederki egiztatu: Gure eŕi maitxeko fonetikan idatzi dizudala-ta, ez dezu ba txuliatzen ari natzaizula uste izan? Ez, Basati, barkatu; ez nuan olako asmorik; baiño bada ez bada ere, "ez det egingo beŕiz".

(Ondo begiratu ezkero, ba-nago-ta neronek atera bear nukeala ortik asaŕebidea. Zer ba? Aitxak-eta erakutzitxako gure eŕi maitxeko fonetika biun gosuak seatik esteu euki biaŕ donostiaŕari txa aitxu oi rioguzen itz eitxeko moruak bezte ezkubire jende artian? Beztia-paiño gitxiao izan biaŕ al deu ba guk? Baiño ez natzaizu bat ere aseŕatzen; poztu egiten nazu, idazkai artaz erakutsi uste bait-det fonetika-legeak euskera-banatu-bide ditugula, ta asaŕebide (truliatzen segurube!) ta beraz ez zazkigula bat ere on.

Bestalde, ilundu ere egiten dute idazten deguna: beintzat, ez didazu fonetikazko nere idazkaian esaten nuana ulertu; Irakuŕi, zazu, aŕen, beŕiro, gogaikaŕi ez ba'zaitzu, ta ez dezu arkituko zure "Esan bear dizkizut" oietan aitatzen dezunik; or diozunik ez det nik esan.

"Artikulo" zena, nolabat deitu beaŕ-ta, zuek ala zenerabiltelako jaŕi nuen; atsegiñago zait bai "Orixe,,'k eta erabili izan duten "mugitz". Izena gaiñeru ez da izana, ta ori ongi aditu zenuan.

Eta amaitzeko, geiago iñor aspertu baiño leen.

Zuk diozun liburu maite ori ementxe daukat aspaldidanik urteen buruan orituxe. Gazte nintzala ango arauz idatzi oi nuan zeatz zeatz.

Baiño, ondikotz! gerokoan, "elegantiagua" ba'da ez ba'da, (eŕezagoa danik ez det nik esan) euskera guzien "batasunari buruz", nere ustez, "geien laguntzen duan" era nidazten det egiten dedanetan; nere ondar-aletxua, txiki ta guzti ere, gal ez dedin.

Eta ez nik bakaŕik; zuk diozunez "Danak" phonetika baztertubaz idazten ba'dute", ez uste elegantiaguagatik egiten dutenik. Danak emakume txoro egitea zenuke ori, ta euskal-idazleak ez dira olako. Abeŕtzaleak diranez (zenbat tradicionalista edo radical ote ditugu gaurko euskal-idazleetan?) egiazko abeŕtzaleak diranez, euskerari (ta beraz abeŕiari" onik geien egin-uste duten era nidazte dute, siñis zaidazu.

Ni ez dakit nolako idazlea naizen, baiño zuk erakutsi dezu euskalki guziak gogara darabiltzizula. Beti ere paŕe gaiztoa ezpaiñetan, oso idazkai bixia egin dezu; atsegiñez irakuŕi det, eta, zerana zerala (ni zein nazun antz eman diozula deritzat) idatzi, euskeraren onerako onena deritzaizun bidetik.

Fonetika-bidea obea dala ba'deritzaizu, oŕegatik leen bezin adiskide.

Andra Milia aspaldi il zan, gaixoa.

To bostekoa; ta aguŕ.

LATSUR

Uaŕa.—Poz-pozik dakusat zuen lotsea. Olantxe eroan bear litzakez eztabai gustiak! Oraingoan eredutzat jaŕi bear zarie. Bakoitzak bere gardiak daukoz eta aldeztu bear dauz, baña auŕekoaren lotsa onagaz. Zorionak egiten dautzuedaz "Irular" "Basati" eta "Latsur" azkaŕoi. Olako eztabai anaikoŕetarako zabal-zabal daukoguz oŕi-aldeok.

ERRIJETATIK

ARRASATE

ARANTZAZU'N.—Goizeko lauretarako ezagun zan kalean ze egun zan joan dan igandean. Arantzazu'rako eguna gendun, bere jaiaz osteko lenengo igandea daukagu-ta ortarako izendaturik. Bertotik oiñez joateko ziranak lauretako mezetan ziran; bostetakoa entzunda joan giñan geienok seiretako berarizko bultziz. Zazpi kotxeak bete-bete zituala abistu zan, berebilak bezela. Gero, Oiñati'tik aldapan gora ikustekoa zan eŕomes-talde eder ura amabost misterioko eŕosarioa esanaz ta tartetan abesti egokiak abestuaz. Oiñutsik ere igo zuten bi ama onek aldapa latz luzea. Arantzatzu'ko Amak iritxiko al die nai dutena.

Ango Meza nagusi aundian Grisbacher'ena abestu ziguten eta emengotaŕ Apeŕibai Aitak itzaldia egin Aŕasate'k Arantzatzu'kin beti izan dituan ze-ikusi estuak atatuz-ta. Ia urteoroko euriak naŕastu gero eguna. Milatik gora giñala entzun genduan mondrautaŕ eŕomesak. "Goazen pozelai.."

ERIOTZAK.—Astean iru eriotz izan ditugu. Ostegunean Musakola'ko Zabaleta baseŕiko Gorosabel'daŕ Nekane neska gaztea, auzo artako batzokiko lendakariaren aŕeba. (G. B.) Eta eguakoitzean Milabañes'ko gizon prestua; oso gizon ezaguna zan baseŕitaŕen artean, azoketan tratante-ta ibiltzen zan-ta. Ondaŕibi'ko Aita Nagusiaren anaia zan Garai'taŕ Kepa zana. (G. B.) Eta gure ikastolako iru mutikoren aita. Otoitz bana aien alde. Urte beteko mutiltxo bat ere il zan eguenean: Iriarte'taŕ Eukeni; aspaldi geixorik zegoan eta Jaungoikoak zerura eraman du.

APAIZAK.—Beste apaiz bat etoŕida gure eŕian bizitzera. Orain ari da eŕia apaizez ornitzen; len igandetan mezak emateko lain ere ez zauden baiña. Berastegi'tik eldu zaigu len emengo koajutore izandako don Frantzisko Belauntzaran apaiz ona. Ongi etoŕi ta urte askotarako.

ZOTZ. — Sotero Moreno txiŕindulari ospatsuak, geiago ez dijoala laisterketetan ibiltzera, ta zotz egin du bere bizikleta. Sanpedro'taŕ Gergori gazte begikoa izan da zori oneko ori ta egin da txiŕinguts edeŕaren jabe.

Datoŕen aste arte Jaungoikoak gura ba'dau.

IKASLE.

MOTRIKO

Igaro ditugu agoŕileko jayak; beragaltik zerbait jaŕiko det orainguan.

Urtero egiten dan jaia izan zan Galbaxo mendian: goizeko jaupa ixilak, eta amaŕetan jaupa nagusi edeŕa. Oste aundia bildu zan bertako bazelizan, eta eŕoska pilo edeŕakin jatxi ziran eŕira, bazkaitako gogo edeŕa eginda. Aŕatsaldian ostera, eŕomeri polita egin zan ango zelaian aŕatsaldeko seiterdak arte.

Amabostean ez zan egin, egitarauan jaŕitako estropadarik ta ezta ere amaseian, itxaso txaŕa egon zalako. Baña egun auetan, eskuzko joko edeŕak egin ziran, Arteondo, emengo Aŕieta ta Agiŕe'ren aurka; bi egunetan, Arteondo'k irabazi zuan, lenbizikoan 22 ta 20; ta bigaŕenean 22 ta 9.

Ta amasaspian, guk iñoiz ezagutu ez degun jaia egin zan Ibiŕian, zaŕak ziotenez "San Piñaztei" zala ta; done au, izendegian agertzen ez bada ere, bada Motrikoaŕen oitura zaŕetan, eta itxuraz berbiztu da.

JAI BEŔIAK.—Igandean 22'an izango ditugu beste jaitxo batzuek ere. Aŕatsaldeko lauretan, ezkusko jokaldia: Arteondo emengo Ituarte (Batakon) ta Aŕieta'ren aurka, ta ondoren gure kaiak, estropada edeŕa. Aŕatzean beŕiz eŕomeria beko enparantzan, ta ordua zan jai onek bukatzeko! Alaxen.

ARNOKO AZTOREA.

MENDARO

EZKONTZA.—Datoŕen astian ezkontzekuak dira Aŕieta'taŕ Jon, Etarte basetxeko mutila eta Motriku'ko neskatil lirain bat. Zorionak auŕez.

AGUŔTU. — Bilbao'tik etoŕita emen aguŕtu degu gure lagundu Aritaonandia'taŕ Danel.

GUDARITZARA.—Gure aŕtian egun batzu igaro-ondoren Barcelona'ra juan da gure lagun dan Irusta'taŕ Bitor.

BELBIL-LASTEŔKETARA. — Eŕitxo onetako biztanle modoxka bat ere joateko dago Lasarte'ko belbel - lasteŕketak ikustera. Ondo ibili guziok.

KAIKU.

Kirol-zalla

Igandeko estropadak

Portugalete'ko estropadak ospetasun aundijaz egin ziran.

Goxlan-goxetik agiri zan Portugalete jai-egunetan lez orniduta, jai antolatzaliak poliŕo geŕtau ebezan aulki berezizko ikustegi edo "tribuna" egokijak; ea jaŕlekoubak garestitxubak ixan-aŕen, bete-bete eginda ikusi genduzan estropada oŕduban.

Notintzea aneika eldu zan igande-aŕatsaldian Portugalete'ra. Bultzija ganezka ikusten genduzan piŕian-piŕian, zetan esan lez tximist-buŕdi, eta belbilak. Itxaseŕtzeko ixontzijak ainbat ikusi nebazan. Lenengo elduzana Ondaŕabi'ko "Ana Karmengoa" ixan-zan, ontzi onek ekazan kai edo poŕtu aretako itxastaŕ aŕaunlarijak, oneik traŕeru barik etozan, eurontzat traŕerua Sestao'ko Kaikutaŕa" geŕtauta ebelako. Beste, eŕitaŕ ondaŕabitaŕak baŕiz ekaŕi eben euran traŕerua. Onen ganera Portugalete'n ikusi nebazan beŕmeotaŕ "Danielin", "Argiñe'na", "Euzkotaŕa" "Flor de mayo" eta ainbat Kastro'ko itxas-ontzi eta "motoŕesko" batelikuak.

Ikuskaŕijetan ikuskaŕija-zan Portugalete'ko ikuskixuna oŕ aŕatsaldeko bostak aldian. Ibai'ko eskeŕetiko egala "topin-top" eguan. Asi Ondaŕeta'ko Txuŕuka'ren gixairudi ondotik, Lexona'ko ostiko zelai egaleraño oŕatzik bere etzan saŕtuko. Ibai'ko eskumaldia etxe telatutaraño josiŕa eguan. Eŕtxadonako "Kanpatoŕia" be, "eskaladores" josiŕa eguan. Bostak amaŕ gitxijagoroko asi zan iŕatija, traŕerua'ri deika. Berialaxe, bakotxa bere lekubak aŕtuta era onetaje uŕteteko jaŕi ziran.

Portugalete-aldetik lenengo malan Sestao, txamaŕa jantzi maŕgo oŕlegijakaz. Onen uŕengo eŕdi-aldian, Orio txamaŕa margo orijakaz, onen onduban irugaŕen malan Ondaŕabi oŕiŕaŕak, txamaŕa maŕgo zurijakaz, eta laugaŕen malan Ondaŕeta aldetik ondaŕabitaŕ itrastaŕak txamaŕa margo urdiñakez. Bostak eta miniŕu bijan entzun zan geŕtazun deirako tanbadea. Emetik minutu bat ingirura uŕten ziran bulaŕtsu ta txil unatxuban geure aŕaunlari eŕimiak. ¡Azan mutilak eŕemutia! baña lasteŕ agiri zan oriotaŕan jaza. Onen eŕemuak uretatik bitsen txistilik bere, ez eben etaraten. Bira-birak iñoizkorik dotorien ikusi dodaz estropada onetan. Traŕeruak ol sospalak dirudijen, aŕaunlarijak baŕitz "manikizko" justurijak. Mugara arin etozan eta iñoz ez lez txanbarik bere emon barik zabal-zabal "presko-presko" saŕtun ziran oriotaŕak amasaspi miniŕu eta ogetabi segunduan. Danak batera eta gogo bixijagaz, jauŕti ebezan bakotxa bere eŕemuak goxek?gorantz. Bigaŕen Sestao eldu zan oneik bederatzi "palada" beranduago, amasaspi miniŕu eta ogeta amaika segundu eginda, onein uŕengo ondaŕabi eriŕaŕa, amasaspi eta ogeta amalau edo iru segundu Sestaokuak baño beranduago. Azkenengo ondaŕabi itxastaŕa, au segundu baten aldiaz.

Danan eretxija zan Orio'k irabasi biaŕ ebana, baña neure ustez etzan laŕegi estutu, Orio ondiño geyago da. Sestao'k estropada edeŕa egin eban, subertia be, eurakaz ixan eben, egal egokijona ixan eban aŕen, ondaŕabitaŕ bijak juan ziran tokirik astunenetik, eta onetatik batek traŕeruaz erueban aldea be naikua zan.

Dana-dala estropada obarik ezin ixan leike, txalorik geyenak sestaotaŕantzat ixan ziran, baña ontzijan txistubak txaluakaz nastauta oriotaŕantzat.

Eskeŕak Gipuzkua'ko aŕaunlari eŕimiari geure kirolik ikusgaŕijenak eztau atzerantzik egingo. Ondaŕabi'ko aŕantzale apalak zaletasuna eta bijotz zabala eurakaz dabe, eŕemutan duazan bidetik eztira azken iñoiz ixango. Eŕdu zubek uŕenbe atzerantzik barik, euzkuak atzerantz iñoiz egin bakuak dira-ta.

Zorijonak Orio'ko aŕaunlari garaleai, zorijonak Sestao'ko mutil zaletu eta gogotsubari, naikua egiŕen dozube, eta ondiño uŕunago eldu ziñaike. ¡Auŕera geure kirola! ¡Gora geure aŕaunlarijak! Datoŕen uŕte-aŕte.

OGOÑOPE.

Ona emen zelan geratu ziran:

1'go. Orio, 17m. 22 s.
2'gn. Sestao, 17 m. 31 s.
3'gn. Ondaŕabi 17 m. 34 s.
4'gn. Ondaŕabi, 17 m. 35 s.

Atzoko garaipenaz urti bi oneŕan eruan darua Aldundijaren Txola Ori'ko aŕaunlari-taldiak. Ibiltaldi onetan zenbat aldi igaro eben igaz jakin gura dabenarentzat ementxe jaŕiko doguz:

Orio, lenengo ekiñaldijan, 17 m. 47 s. Bigaŕen ekiñaldijan 17 m. 14 s.

Sestao'ko, lenengo ekiñaldijan, 17 m. 32 s. Bigaŕenian, 17 m. 18 s.

Ondaŕabi,k, lenenguan, 17 m. 59 s. Bigaŕenian, 17 m. 22 s.

Portugalete'ko udaletxian emon eutsezan sarijakak-eta. Txaŕo asko entzua ziran.

Lasarte'n

LASARTE'KO NORLENKA NAUSI
JAN CARACCIOLA TXAPELDUN

Aspaldiko urtietan ixan eztan aña jente juan zan igandian Lasarte'ra. Toki gustijetan agiri ziran gipuzkoaŕak eta kanpotaŕak. Lasarte'n eze-ze Donosti'n bertan, be, ikusten zan notintzearen gaitza. ¡Ikuskaŕija! France-aldetik etoŕi ziran belbilak! Bizkai'tik, be, bosteun edo seireun belbil juango ziran.

Lasarte'ko belbil-norlenka ori entzutetsuba dogu. Europa'ko lasteŕketa gustijen aŕtian aipatubena ete-dan gagoz. Donostiaŕai eskeŕak egin biaŕ yakez olako lan edeŕak dirala-ta.

Ibil-bide osua 300,650 aneuŕkin ziran eta ogetamaŕ jira egin biaŕ yakoz esijaŕi. Olako tokijetara bulzkindari onenak datoŕz. An ziran Nuvolari, Caracciola, Fagioli eta abaŕ. Eta belbil-oleak, be, bulzkin onenak bialtzen dabez.

"Mercedes" deritxon bulzkindari etxi[e]k pozik geratu zan, bere makiñeak, ba... nengo malan geratu ziran. Iñok ez... zegatik, baña Nuvolari entzutetsubak... tan bera laga ebazan ibiltaldija. Gero... Van Stuck'ek be orixe egin eban.

Azkenez olantxe geratu ziran:

1'go. Caracciola, iru ordu, bed... minutu eta emeretzi segun. Oro... aneuŕkin.
2'gn. Fagioli.
3'gn. Branztchistc.
4'gn. Winille.

Itxulkera lasteŕena Varti'k, egin e... orduko 174 aneuŕkin ibili zar, b...

Ostiko tak

EUZKO-TXOLA

San Mames'en jokatu eben Dono... eta Athletic-taldiak. Ezerez! Aspald... lo dagoz, oiz, ostikolari gustijak. Do... ti'kuak ganorarik ezeben erakutsi, Bi... 'kuak, be, baŕdin-samaŕ. Ostikoketa... yan agertu ziranian txalorik etxaken... ¡Mixco'n jazo diranak jazo-ta! ¿Eta... tiak? Iñor ez. Alako lotsagaŕikeririk! ... katu ezegozan San Mames gustijan. ¿... gatik? Eztakigu, baña geure ustez a... txu mendira duaz, beste batzuk onda... tara. Eta gero... gerokuak. Aspaldiko... tikaldijak ikusi baño ikusi ez, obe!

Ahletic'k saspi tantu etxerau eb... Donosti'k bapez. Oiako partidubak ... tera nor juatzu, ba?

Beste jokaldijak

BESTE JOKALDIJAK

Vigo'ko Sporting'ek iru tantu ... eutsozan Gijon'i. Onentzat bi naiko ... ziran.

—Coruña'n jokatu eben Deportivo ... Aviles'ek. Lenenguak 2 eta bestiak 1.

—Oviedo'ko ostikolari-taldiak lepo-... emon eutsan Celta'deritxonari. Zortzi ... tu edeŕ kutxaratu ebezan.

Valencia'ri, be, Murcia'k iru saŕu ... tsozan.

—Beste gustijak, be, antzekuak. Ga... tzi bako jokaldijak ixan ziran-ezkero, ... retzaz eztiñogu ezertxu, be. ¿Zetara... Ostikolari geyenak "z..dun" biuŕtu ...

Deunen bixitzea

Urtzule ta lagun ziñ[o]pa deuna

Urrilla-21' gn.

Urtsule eta bere lagun ziñopa ta ... kutz garbijak England'ekuak ziran. E... ma'ko urijan irakuŕi daŕekian esku-ida... batean euren baŕi damoskube. Boska... eungi aretan kistaŕtasuna ondo edatu... eguan luŕalde areŕan. Basatijak ziran-... en, berialá lagundu ziran eta Gotzain ... jauparijai lotsa aundija eutsoen.

Cornouaille'ko bakaldunaren alabea ... Urtsule gastia. Bere ama zan Dore ... kaldun-emiak erakutsi eutsozan eka... garbijak eta Kisto'ganako maŕasuna. A... areŕan Gartzen kaxaŕa'ren buruzagi ... gosija, Maxima ixan zan. Gixon an... eta doloŕa.

Buruzagi onen aundi-naikerijak etzi... asetu. Bere gudaroste gustijakin Armo... ca-ingurubetara juan zan. Bere gudari... buru zan bat kistaŕa zan eta oni em... eutson luŕalde gustija. Nantes urija ge... tu zan Maxima gaiztua. Gudaro geyen... bertan zabaldu ziran, breton eta engla... daŕak ziran-aŕen.

Gauzak baretu ziranian, Cornocuaille'... bakaldunari mezularijak bialdu eutso... eta bere emaztetzat eskatu eutson Urt... le gastia. Gudari ta buruzagi geyena... ezkongeyak ziran ezkero, ugarte areta... ekaŕi egijezala neskatil gastiak eska... eutsen.

England'eko bakaldunari ondo eri... yakon eskari a. Bere alaba Urtsule ga... arentzat alako kistaŕ bakaldun-ordez... bat atsegin yakon. Batu ebezan luŕal... aretako emakume batzu eta Bretaña'... luŕaldiaren jaube egin eŕezan, juan zira...

Baña ekaitz goŕi batek jaurti eban itxa... ontzija eta Belgique-aldietara juan zira... Tiel kayan saŕtu ziran eta andik, Rh... ibaiz gora, Colonia'ra eldu ziran.

Gartzen bakalduna asaŕe eguan. Be... gudarijen buruzagi zan Maxima'ren eg... kixunak zelakuak ziran jakin ebania... amoŕuz jaŕi zan eta Sarmatzia'ko basa... jai laguntzea eskatu eutsen. Oneik eto... yakozan eta Rhin ingurubak biŕindu eb... zan.

Ibaiz gora joian itxasontzi edeŕ a iku... si ebenian, atxilotu ta kai batera erua... eben. Ikeratu ziran ainbeste emakume ki... taŕ ikustiaz. Basati arein nausi zana... emaztetzat aŕtu gura-ixan eban Urtsu... gastia. Gustijen ixenean erantzun euts... Urtsule'k. Aren itz zerutaŕak atxakoza... atsegin ixan basati areri ta maŕasunare... ordez oŕotua senti eben.

Bitsa erijola dei-egin eutsen gudari gus... tijai eta ezpatak atera ebezan euren sa... gaŕeatik. Ontzi-ganian egozala buŕub... eutsen emakume gusti arei. Baña etzi... ran ikeratzen. Gastienak eurek, be, pozi... opaldu eutsen Kisto'ri euren bixitza ga... bija.

England'eko emakume zintzo arei... olantxe zeruratu ziran. Jaungoikua're... agindubak zaintziaŕen, ludiko atsegiña... -eta bazteŕtu ebezan.

Irakurri EUZKADI